



Zinemaldiaren osteko bestondoa

 MIKEL ANTZA

Aurten ez naiz Zarautzera joan Literaturariara. Nekatuegi nengoen. Neure buruari ezarritako zine maratoniaren amaieran ondo zetozkidakeen begiei zabalik eusteko *Laranja mekanikoa* filmeko Alexi ipini zizkioten gailuak.

Victoria Eugenia antzokian nengoela gogoratu nuen bertan ikusi nuela Werner Herzogen *Fitzcarraldo*. Eta haserre atera nintzela amaitu aurretik, irakurria bainuen filmean erabilitako ontzia mendiz garraiatzen agertzen diren Amazonasko biztanleetako batzuk hil egin zirela.

Antzoki Zaharrera hurbiltzean gogoratu nuen orain Casino Gran Kursaal bihurtu duten lehengo Petit Casino aretora eraman gintuztela ikastolatik Jose Mari Zabalen *Axut* film apurtzailea ikustera.

Ez dut Urrezko maskorra irabazi duen *Crainou* ikusi, sinopsia irakurri, eta azken unean aspergarria izango zela irudituztoida. Nire gogo eta irizpideen arabera hautatu ditut ikusi nahi nituen filmak. Ez naiz filmei buruzko nire iritzia emateko hurbildu. Zinemaz gozatu nahi izan dut, egoistaki, besaulkian eseri eta irudien bidez iristen zitzaizkidan istorio eta kontakizunekin plazer hartu.

Ezinezkoa egin zait asmoa erabat betetzea. Zinemaldiak zinema kutsatzen

du. Osasun kontuen aitzakian hartutako neurriek bezainbeste. Zinemaldian, filmaren inguruan antolatzen den erritualak formateatzen du filma, eta ikuslea ere.

Akreditazioa poltsan ezkutatuta, Zinemaldiak Donostiari ekartzen dionari kasu egin gabe ibiltzen saiatu naiz. Ez dut lortu. Zinemaldiaren eragina sentitu dut, zinemarena baino gehiago. Neure burua behartu nahi izan dut hainbat konturi ezikusia egitera. Ez dut lortu.

Tasting tour-era eta *tasting film*-era etorritako turista zinemazaleek bete dituzte Donostiako Alde Zaharreko kaleak eta tabernak. Bertakook arrotz sentiarazteraino.

Poliziak ikusi ditut Maria Cristina inguruan, beren armak prest. "Johnny Deep babesteko ote?". Segurtasuna omen den horretaz arduratzen direnek izango zuten motiborik kerik gabeko garaiotan horrelako indar erakustaldiak egiteko.

Proiektatu diren filmeetan euskarak izan duen presentzia neurtu dute. Batzuei uste baino gehiago irudituko zaie; beste batzuk kezu izango dira, gehiago nahiko luketelako; beste batzuei gehiegizkoa eta soberazkoa irudituko zaie.

Gaztelaniaren presentziaren neurketa egin beharrik ez dago. Badakigu ehuneko ehuneko dela.

Hogeita hamazazpi urte igaroak ziren oraindik "Auzoak eta herriak" saila zeukan Zinemaldira joateko aukera izan nuen azken aldi hartatik. Eta bai, noski, euskararen *kutsadura* nabarmen hedatu da arlo guztietan. Baina Zinemaldian ere, antolaketaren aldetik egindako ahaleginak ahalegin, euskara hizkuntza subalternoa da. Gaztelaniaren eta ingelesaren azpian, euskaradun borondatetsu eta kextatiei erabiltzeko eskaintzen zaien makulu ezdeusa.

Muturra okertu zidan adiskide batek Zinemaldian parte hartzeko nire asmoaren berri jakitean. Eta beste batek, esan nionean Literaturariara ez agertzeko arrazoia Zinemaldiaren ondorengo nekea zela, honela erantzun zidan: "A, ni ere nekatuta nagok Espainiako zinemaldi horrekin, euskarazko kulturgintzaren hedapena paralizatzen duen Movistar eta RTVEren *San Sebastianeko Zinemaldiaz*".

Zinemaldiaren bestondoa pasatzen zaidanean, ingurukentzako ikusitakoan artean gustatu zaizkidanen zerrenda egin, eta areto erdi hutsean zinemaz gozatzearen plazera berreskuratuta nahi dut. Bai, hori ere plazera baita. ●